



ARG.: Yongping Bao/Wildlife Photographer of the Year 2019.

Basabizitza, eder eta gordin

Wildlife Photographer of the Year 2019



Unea (The Moment)

Yongping Bao (Txina)

Qinghai-Tibet lautadan, marmota honek hibernatzeari utzi berri zion azeri tibetarrarekin topo egin zuenean. Azkar ibili zen Yongping Bao, erasoaren ueña harrapatzeko: harrapakaria hortzak erakusten, harrapakinaren ikara, bizitzaren eta heriotzaren indarra bien aurpegietan.

Altuera handiengan bizi diren ugaztunen artean daude Himalaiako marmotak. Sei hilabete pasatzen dituzte izugarritzko sakoneretan egiten dituzten

habietan gordeta. Ateratzen direnean, predatzailerak ez daude aukera galtzeko.

Aurtengo basabizitzaren argazki onena izan da, [Wildlife Photographer of the Year](#) lehiaketa ospetsuan. Hurrengo orrietan, lehiaketak utzi dizkigun beste argazki eder batzuk.



ARG.: Stefan Christmann/Wildlife Photographer of the Year 2019

Bizitzaren lotura (Bond of Life)

Stefan Christmann (Alemania)


Pinguino enperadore txitek eta gurasoek sarri begiratzen diote elkarri. Lotura estua ezinbestekoa dute, txitek aurrera egingo badute.

Katu dotorea (Cool Cat)

Isak Pretorius, South Africa

Peruko Amazoniako basoan gurgurio bitxi hau aurkitu zuen Frank Deschandolek. Begi beirakarek erakusten zuten hilda zegoela, eta toraxetik antena-tankerako hiru luzakin ateratzen zitzaizkion. Onddo baten fruitu-gorputzak ziren. Onddo parasito horiek gurgurioen mugimenduen kontrola hartzen dute: landare-zurtoin batean gora igoarazten diete, eta nahikoa igo direnean, zurtoinari gogor helduta gelditzen dira. Orduan, ondoak, intsektu zonbiaz elikatuz, fruitu-gorputzak garatzen ditu, esporak zabaltzeko.





Erle-ilara (Bee line)

Frank Deschandol (Frantzia)

Atlas mendietan, erleak aintziraren ondoko belar luzeetan pausatzen hasi ziren, atsedean hartzeko. Barailekin belarrari gogor heldu, eta, pixkanaka, erlaxatzen hasten dira; gorputza jaitsi, hegoak deskantsuan, antenak behera... lo hartzen duten arte. Halaxe dago ilarako azkena.





ARG.: Diana Rebman/Wildlife Photographer of the Year 2019

Trago hotza (Cool drink)

Diana Rebman (Estatu Batuak)

Hokkaido uhartean (Japonia), goiz hotz batean, Diana Rebmanek amilotx-saldo bat ikusi zuen adar batetik zintzilik zegoen izotz-kandela baten bueltan. Koreografia bat zirudien: bata bestearen atzetik hurbiltzen ziren izotz-kandelara, eguzkiak urrutako tantak edatera.

Une izoztua (Frozen Moment)

Jérémie Villet (Frantzia)

Borroka basati baten erdian, hotzaren hotzez, gelditu egin behar izan zuten Dall ahari hauek, elkarren adar espiroletan gurutzatuta. Ekaitz bortitza eta berrogei gradu zero azpitik; ez zen giro borrokarako ere. Eta hantxe zegoen Jérémie Villet, unea guztiz izozteko.





Elur-lautadako nomadak (Snow-Plateau Nomads)
Shangzhen Fan (Txina)

Antilope tibetar arren talde bat, Kumukuli basamortuan. 5.000 metrotik gora eta $-40\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko tenperaturan bizi ahal izateko, ile luzearen azpian beste ilaje arin eta bero bat dute, *shahtoosh* deitzen zaiona. Ilaje preziatu hori lortzeko antilopeak hiltzen dituztenez, haien populazioa izugarri murriztu zen 1980ko eta 90eko hamarkadetan. Geroztik zertxobait gora egin duen arren, oraindik ehizatzen dira shahtooshezko xalak egiteko.

ARG.: Shangzhen Fan/Wildlife Photographer of the Year 2019.

